Diskurtsoaren aurkako Estrategia eta Ekintza Plana plazaratu zuen, fenomeno konplexu horri aurre egiteko diziplina anitzeko ikuspegiak proposatuz. Ekimen honen abiapuntua da aitortzen dela gobernuak eta

1 Ikus: United Nations, Human Rights Council (2015). Report of the Special Rapporteur on minority issues, Rita Izsák. 5 January. A/HRC/9/13. Hemen eskuragarri: https://ap.ohchr.org/documents/dpage_e.aspx?si=A/HRC/28/64; edo The United Nations Framework of Analysis for Atrocity Crimes: A tool for prevention (2014), Hemen eskuragarri: https://www.un.org/en/genocideprevention/documents/about-us/Doc.3_Framework%20of%20Analysis%20for%20Atrocity%20Crimes_EN.pdf

2 Nazio Batuak (2019). Gorroto Diskurtsoaren Aurkako Borrokarako Nazio Batuen Estrategia eta Ekintza Plana. Hemen eskuragarri: https://www.un.org/en/genocideprevention/documents/advising-and-mobilizing/Action_plan_on_hate_speech_ES.pdf

3 Antonio Guterres, 2025eko ekainaren 17a: <https://news.un.org/en/story/2025/06/1164501>

2. BLOKEA: Txosten eta ikuspegi globalak

plataforma teknologikoek ordura arte garatutako estrategiek ez zituztela esperotako erantzunak eman, gorroto-diskurtsoen hazkunde etengabeak agerian uzten duen bezala.

Estrategiak eta Ekintza Planak azpimarratzen dute gorroto-diskurtsoa bultzatzen duten kausei eta faktoreei aurre egin behar zaiela, bai eta diskurtsoaren eraginak arindu behar direla ere. Horretarako, NBEko agentzia eta programa guztien arteko baliabideen

zeharkako koordinaziorako deia egiten dute, bakoitzaren aginduen eta ekintza-eremuen arabera.

Ikuspegi berri eta sakonago horrek agerian uzten du neurri legegileak, gorroto-patroien azterketa eta bitarteko tradizionalak eta lineako plataformetako edukien moderazioa ez direla nahikoak berez, eta gorrotoaren egiturazko kausei eragiten dieten estrategiekin osatu behar direla. Puntu horretan, hezkuntzak funtsezko zeregina dauka.

HEZKUNTZAREN ROLA GORROTO-DISKURTSOARI AURRE EGITEKO ORDUAN

Estrategiak eta ekintza-planak hezkuntzak gorroto-diskurtsoari aurre egiteko duten rola azpimarratzen dute. Hezkuntza-sistemek gorrotoaren aurrean eta dinamika baztertzailen aurrean herritar erresilienteak prestatzeko duten potentziala agerian geratzen da Garapen Iraunkorreko 4. Helburuaren 4.7 xedean, eta sakonkiago garatzen da Bakearen, Giza Eskubideen eta Garapen Jasangarriaren aldeko Hezkuntzari buruzko 2023ko Gomendioan, aurreko kapituluetan azaldu den bezala. 2023ko Gomendioak esplizituki nabarmentzen du hezkuntzaren rola eginkizun honetan: "(...) desinformazioari eta informazio okerrari, gorroto diskurtsoari, indarkeria mota guztiei, genero indarkeriari, eduki kaltegarriari eta online abusu eta esplotazioari aurre egitea".⁴

Hezkuntzak kokapen pribilegiatua du, gorroto-diskurtsoaren oinarri diren aurreiritziak eta estereotipoak ikusarazteko duen gaitasunagatik, ikasleei zein irakasleei hori kritikoki aztertzen eta jorratzen lagunduz. Munduko Herritartasunerako Hezkuntza (MHH) bezalako hezkuntza-ikuspegiek gorroto-diskurtsoaren arriskuei, kalteei eta ondorioei buruzko kontzientzia indartu dezakete, bai eta diskurtso hori identifikatzeko eta horri aurre egiteko gaitasuna garatu ere, adibidez, pentsamendu kritikoaren, ikaskuntza sozial eta emozionalaren eta herritartasun digitalerako hezkuntzaren bidez.⁵

Hala ere, gorroto-diskurtsoa ez da desagertuko haren ondorioei erantzunez bakarrik; prebentzioa ere behar

da. Horretarako, gorrotoak aurrera egin ezin dezakeen gizarte-giroa sustatu behar da, ikaskuntza-ingurune inklusiboak eta kalitatezkoak bermatuz, eta giza eskubideen errespetua eta aniztasunaren onespren positiboa sustatuz. Helburu hori hezkuntza-ikuspegi integral baten bidez bakarrik lor daiteke, hezkuntza-sistemaren osagai guztietan egiturazko kausak eta gorroto-adierazpenak aldi berean jorratuz.

Bestetik [Politikak formulatzeko UNESCOren gidak](#), Genozidioaren Prebentzioari buruzko NBEko Aholkulari Bereziaren Bulegoarekin lankidetzan garatuak, gorroto-diskurtsoari zeharkako ikuspegi honetatik heltzeko orientabide praktikoa eskaintzen ditu:

> **Hezkuntza-politiken eremuan**, UNESCOk azpimarratzen du gorroto-diskurtsoari aurre egitea lehentasun nazional eta global gisa ezarri behar dela, erabaki politikoen maila gorenek esplizituki babestuta. Horretarako, gorrotoaren aurkako plan nazionalak hezkuntza-erantzunak txertatu behar dira, curriculum ofizialekin eta 2030 Agendarekin lotutako era guztietako estrategiekin lerrokatu behar dira. Politikek adierazpen askatasunaren defentsa eta diskriminazioaren aurkako babesa orekatu behar dituzte, giza eskubideetan oinarritutako herritartasun digitala eta globala sustatuz.

4 UNESCO (2023). *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzari, Nazioarteko Ulermenari, Lankidetzari, Oinarritzko Askatasunei, Munduko Herritartasunari eta Garapen Iraunkorrari buruzko Gomendioa*. Hemen eskuragarri: <https://www.unesco.org/es/legal-affairs/recommendation-education-peace-and-human-rights-international-understanding-cooperation-fundamental?hub=87862>

5 UNESCO, Genozidioa Prebentzeko Nazio Batuen Aholkulari Bereziaren Bulegoa, (2022) *Addressing hate speech: educational responses*. Hemen eskuragarri: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000382290?posInSet=3&queryId=7557fc86-8e1f-4a79-9e3d-b9903b099cd7>

2. BLOKEA: Txosten eta ikuspegi globalak

- > **Curriculumari eta hezkuntza-baliabideei** dagokienez, gorroto-diskurtsoari, adierazpen-askatasunari eta giza eskubideei buruzko edukiak esplizituki sartzea proposatzen da, bai ikasgai espezifikoetan, bai zeharka. Curriculumak eta materialak aldian behin berrikustea funtsezkoa da estereotipoak, alborapenak eta hizkuntza baztertzailerak ezabatzeko, eta ikuspegi desberdinak, iraganeko indarkerien historiak eta historikoki baztertuta egon diren taldeen esperientziak sartzeko. Partaidetza-metodologiei, kasu-azterketetan eta esperientzia-ikaskuntzan oinarritutakoek, ikasleek gorroto-dinamiken etapetan posizionatzeko eta horiek identifikatzeko, baztertzen eta indargabetzen ikasteko duten gaitasuna indartzen dute.
- > **Hezitzaileen gaitasunen garapena** da beste dimentsio nagusietako bat. Hasierako eta etengabeko prestakuntzak ezagutzak, trebetasunak eta konfiantza eman behar dizkie ikastetxeetako irakasle eta zuzendariei, elkarrikketa zailak kudeatzeko, espazio seguruak sortzeko eta eztabaidei ekiteko zatiketak indartu gabe.
- > **Erakundeen gaitasunei dagokienez**, UNESCOk "eskola-ikuspegi integrala"⁶ sustatzen du, hau da, gorroto-diskurtsoa esparru ugarian jorratzearen aldeko apustua egiten du: barne-politikan, eguneroko errutinetan, curriculumetik kanpoko jardueretan eta eskola-kultura inklusiboetan. Erakundeek mekanismo argiak izan behar dituzte prebentziorako, kaltetutako pertsonei laguntzeko eta egunerokoan gertatzen diren gorabeheren erantzuteko, elkartasuna eta ongizate kolektiboa lehenetsiz.
- > Azkenik, **aliantzak** ekintza horien irismena eta iraunkortasuna handitzen dute. Familiarikiko, komunitatearikiko, gizarte zibilarekiko, sektore pribatuarekiko, akademiarekiko eta plataforma digitalekiko lankidetzak ebidentzian oinarritutako ikuspegiak ahalbidetzen ditu, testuinguruan kokatuak eta epe luzeak, eskola barruan eta kanpoan gorroto-diskurtsoa prebenitzeko eta indargabetzeko hezkuntza-gaitasuna indartuz.

UNESCOREN AHALEGINAK GORROTO-DISKURTZOARI HEZKUNTZAREN BIDEZ HELTZKO

UNESCOK diziplinarteko ikuspegi baten bidez heltzen dio gorroto-diskurtsoari. Ikuspegi horren barruan sartzen dira espazio digitalak arautzen dituzten politiken eta erakundeen arduradunen gaitasunak garatzea, plataforma digitalekin lan egitea eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak. Hezkuntza-ikuspegiaren artean daude Munduko Herriartasunerako Hezkuntza (Herriartasun Digitalerako Hezkuntza barne), alfabetatze mediatikoa eta informazionala edo trebetasun digitaletarako hezkuntza.

Hezkuntza-sistemak eraldatzeko eta indartzeko ahaleginetan, gorroto-diskurtsoari aurrea hartu eta erantzun ahal izan diezaioten, UNESCOren Hezkuntzaren sektoreak, NBEn Genozidioa Prebenitzeko Aholkulari Bereziaren Bulegoarekin lankidetzan, [gida bat](#) garatu du gorroto-diskurtsoari hezkuntzaren bidez aurre egiteko politiken formulazioaren arduradunentzat; eta ondoren, honako baliabide hau garatzen ari da: *Gorroto-diskurtsoari munduko herriartasunerako hezkuntzaren bidez heltzeko gida, hezitzaileentzat*, Nazioarteko Ulermenerako Hezkuntzarako Asia-Pazifikoko Zentroaren laguntzarekin.

Bestetik, baliabide horiek erabiltzeaz gain, funtsezkoa da hainbat eragile garrantzitsurekin batera gaitasunak garatzea, eta ahalegin batzuk egin dira norabide horretan. Esate baterako 2024tik 2025era bitartean, UNESCOK azpieskualdeko eta nazio mailako ekitaldi batzuk antolatu zituen Nepalgo gorroto-diskurtsoarekin lotutako testuingurua eta beharrak mapeatzeko, Asiako hegoaldeko herrialde batzuk kontuan hartuta. Eta beste lanketa bat egin zuen Ekialdeko Afrikako herrialdeetarako, Kenyan. Nepalen kasuarekin jarraituz, kontsulta batzuk egin ondoren, UNESCO alde biko lanean ari da estatu kide parte-hartzaileekin, ekintza-plan nazional zehatzak egiteko eta Nepalen eta Sri Lankan 100 hezitzaile ingururentzat gaitasunak indartzeko jarduera nazionalak antolatzen.

6 UNESCOren eskola-ikuspegiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, hemen kontsultatu: https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000389753;https://openlearning.unesco.org/assets/courseware/v1/1554885be57ff8c7ed500abe187e6eca/asset-v1:UNESCO+UNESCO-04+2021_01+type@asset+block/Whole_school_approach.pdf

2. BLOKEA: Txosten eta ikuspegi globalak

BESTE URRATSBAT: HERRITARTASUN DIGITALA ETORKIZUN DIGITAL BAKETSU ETA IRAUNKORRE TARAKO

Teknologia digitalek, adimen artifizialak barne, pertsonen eta gizartearen bizitzan eragiten jarraitzen duten heinean, bakearen eta garapen iraunkorraren erronkei aurre egiteko hezkuntza-erantzunak lente zabalago batetik birpentsatu behar dira. Dagoeneko ez da nahikoa teknologia kanpo-faktore gisa ulertzea, hau da, lehendik existitzen diren arazoak –gorroto-diskurtsoa, adibidez– areagotzen dituen faktore gisa soilik ulertzea; gaur egun, bizitza garaikidearen egiturazko baldintza da teknologia, digitalaren eta "analogikoaren" arteko mugak gero eta gehiago lausotzen diren testuinguru batean. Egoera horrek hezkuntza-ikuspegi berrituak eskatzen ditu, dimentsio digitala herritarren prestakuntzan kritikoki txertatzeko gai direnak.

Testuinguru honetan, UNESCO **herritartasun digitalerako hezkuntza (DCED)** bultzatzen ari da, teknologia gutako bakoitzean, geure komunitateetan eta planetan duen eraginaz kontziente diren pertsonak prestatzera bideratuta, teknologiarekin modu kritiko, etiko eta informatuan elkarreragiteko

gai direnak. Herritartasun digitala ez da mugatzen trebetasun teknikoen garapenera edo teknologien analisi kritikora; gizarte-eraldaketarako, parte-hartze demokratikorako eta bizikidetza baketsurako duen ahalmena ere aitortzen du.

Herritartasun digitalerako hezkuntza hau hezkuntza-politiketan txertatzeko, arreta berezia eman behar zaie inklusioari, ordezkapenari eta botere-harremanei, batez ere historikoki baztertuta egon diren taldeen kasuan. Ikuspegi horretatik, DCEDk bakerako hezkuntzaren ikuspegi eraldatzailea proposatzen du, ikaslea indarkeria-, bazterketa- eta bidegabekeria-modu digitalak ezagutzeko eta horiei aurre egiteko gaitzen duena, bai eta elkarrizketa, enpatia eta indarkeriarik eza sustatzeko ere, testuinguru digitaletan eta presentzialetan. Horrela, hezkuntza-sistemak konpromiso etikoaren, gizarte-kohesioaren eta erantzukizun partekatuaren eragile gisa bir imajinatzen jarraitzeko esparrua eskaintzen du, elkarlotutako mundu batean.

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

5. ESKOLAK BAKE IRAUNKORRA ERAIKITZEKO ABIAPUNTU GISA: UNESCOREN ASPNET EKIMEN INSPIRATZAILEAK: GAMBIA ETA DANIMARKA

EGILEAK:

Lydia Ruprecht. UNESCOren Eskola Elkartuen Sareko Nazioarteko Koordinatzailea eta UNESCOren ASPnet Unitateko Burua.

Diya Badami. UNESCOn praktikak egin zituen UNESCOren ASPnet Unitatean 2025eko irailetik 2026ko martxora.



Gero eta polarizazio eta desoreka handiagoak markatutako mundu honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da bakearen eta konfiantzaren kultura sustatzea. Hezkuntzak funtsezko eginkizuna betetzen jarraitzen du ahalegin horretan, eta egungo gazterari beharrezko ezagutzak, trebetasunak, balioak, jarrerak eta portaerak ematen dizkio inguruko munduarekin modu eraikitzailean konprometitzeko, bere etorkizuna aktiboki eratuz eta gizarte inklusiboagoak eta tolerantetagoak eraikiz.

Paulo Freireren "Itxaropenaren pedagogia: zapalduen pedagogia birbizitza" liburuan modu adierazgarrian azaltzen den bezala, hezkuntzak ekintzailetza eta aldaketa-gogoak elikatzen ditu. Egokiro bideratu eta bermatuz gero, eraldaketa positiboaren sektore bihurtu daiteke.

UNESCOren Eskola Elkartuen Sarea 70 urtetik gora aritu da koherentzia lanean helburu hori lortzeko, nazioarteko ulermenerako eta lankidetzarako aukerak sortuz hezkuntzako profesionalen, eskola-komunitateen eta ikasleen artean. Gaur egun, 165 sare nazionaletan 10.000 erakunde kide inguru biltzen dira bertan, eta ASPneten helburua bake iraunkorra eraikitzen laguntzea da, UNESCOren balioak eskola kideen ikasgai, proiektu eta politiken erdigunean jarritz.²

Ikuspegi horrek gidatzen du ASPneten lana, eta lehentasunezko hiru arlotan oinarritzen da: Garapen Jasangarrirako Hezkuntza, Kulturartekotasun eta Ondarearen Ikaskuntza eta Herritartasunerako Hezkuntza Globala. Beraz, sareak zuzenean laguntzen du Garapen Jasangarrirako 4. helburua lortzen, Hezkuntza alorrekoa, eta zehazkiago 4.7 xedea.³

¹ *Pedagogy of hope: reliving Pedagogy of the oppressed* - UNESCO Digital Library (<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000119167?posInSet=2&queryId=9404297b-7931-450a-aedc-c3b85a6e787f>).

² UNESCOren Eskola Elkartuen Sareari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: <https://www.unesco.org/es/aspnet>.

³ 4.7. helburua: "2030erako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak eskura ditzaten lortzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu iraunkorrerako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, herritartasun globalaren eta kultura-aniztasunaren balioespenaren bidez, eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpenaren bidez". Informazio gehiago: <https://globaldoors.org/goals/4-quality-education>.

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

ASPnetek misio hori aurrera eramateko kokapen bikaina du, batez ere eskolak ideien laborategi gisa kontzeptualizatzen dituelako, irakasleak eta ikasleak UNESCOren balioak gorpuzten dituzten proiektu berritzaile pilotuetara bultzatuz eta, aldi berean, herrien eta haien komunitateen bizitzan hobekuntza zehatzak sortuz.

ASPnet programaren beste ezaugarri garrantzitsu bat honakoa da: erakunde kide guztietan "Eskola Planteamendu integralak"⁴ sustatzeko konpromisoa, hezkuntzaren ikuspegi holistikoa azpimarratuz, eskola-curriculumak gainditzeko dituen ikasleak, hezitzaileak, familiak eta tokiko komunitateak bizitza osoan ikasteko jardueretan inplikatzeko. Estrategia horrek egungo mundua gero eta interkonektatua dagoela adierazten du; beraz, hezkuntzak eta bakerako hezkuntzak ikasgelatik harago joan behar dute, munduaren ikuspegi multidiziplinarra, inklusiboa eta kulturartekoa hartzeko.

ASPnet sare globalak aukera ematen die eskolei elkarrengandik ikasteko, kulturen, mugen, denbora-eremuen eta kontinenteen bidez, elkarrenganako konfiantzaren eta lankidetzaren kultura garatzeko.

ASP Munduko Sarea osatzen duten hezkuntza-erakundeek hasitako lan hori ilustratzeko, jarraian, hezkuntzaren inguruko bi ikerketa monografiko nabarmenduko dira, bakerako tresna gisa eta diskriminazioaren eta gorrotoaren aurkako diskurtsoaren aurka. Adibide horiek Gambiako eta Danimarkako ASPnet sare nazionaletatik datoz, eta Sareak bakearen eta konfiantzaren aldeko hezkuntzaren inguruan duen ikuspegiaren alderdiak ilustratzen dituzte. Nahiz eta biak nazionalak izan, gai globalekin lotzen dira. Gainera, bakearen aldeko hezkuntzaren malgutasuna eta nola egokitu daitekeen pertsonen, eskolen eta tokiko testuinguruen beharretara eta egoeretara.

GAMBIA, GAZTEAK ETA EMAKUMEAK BAKEGINTZAN AHALDUNTZEA

2022tik 2023ra bitartean, Gambiako ASP sareak – Gambiako UNESCO Batzorde Nazionalarekin eta UNESCO Klub Federazio Nazionalarekin batera – lan egin zuen ekimen eraldatzaile eta multisektorial hau aurrera eramateko: "Gazteak eta emakumeak inplikatzeko ideologia bortitza eta gorrotagarriari aurre egiteko, genero-berdintasuna eta bakearen eraikuntza sustatzeko prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez".

Proiektuaren helburua emakumeen eta gazteen artean ideologia gorrotagarrien arriskuei buruz sentsibilizatzea zen, gizarte baketsu eta inklusiboak eratzeko duten boterea aitortuz eta komunitatearen beharrak aktiboki bere gain hartzeko gaitasuna emanez. Programak pentsamoldeak aldatu nahi zituen, tokiko komunitateei indarkeriaren ideiei aurre egiteko eta genero-berdintasuna onartzeko aukera emanez, eta, aldi berean, mobilizazio aktiboa sustatuz bakea eraikitzeke eta mantentzeko.

Proiektuak emaitza nabarmenak lortu zituen hainbat bazkiderekin eta ASPnet eskoletan, UNESCOren klubetan eta komunitatean oinarritutako erakundeetan parte hartzen dutenengan zentratuta.

600 emakume eta gazte bako bako gehiagok hartu zuten parte tailer eta eztabaida egituratuetan, gazteei eguneroko interakzioetan ideologia bortitza eta gorrotozkoei aurre egiten laguntzeko. Parte-hartzaile horietatik 450 neskek ziren, eta prestakuntza espezializatua jaso zuten beren lidergo eta defentsa trebetasunak eraikitzeke, trebetasun praktikoak eta gizarte generozko arauak zalantzan jartzeko behar duten konfiantza emanez.

Pixkanaka-pixkanaka, proiektuan parte hartu zuten pertsonak beren komunitateetako defendatzaile bihurtu ahal izan ziren, ideologia kaltegarrien aurka hitz eginez, besteak ekimenarekin bat egitera bultzatuz eta estereotipoei aurre eginez.

4 2023ko Gomendioaren aplikazio-gidan zehaztutakoaren arabera ikusita, (<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000396358?posInSet=1&queryId=50327a97-5d77-4d8c-9044-4559de3d87d5>), eskola-ikuspegi integralak zera esan nahi du "eskola-bizitzaren alderdi orok bermatzen duela politikaren helburua, hau da, eskola-gobernantzak; edukiek eta metodologiek; instalazioen kudeaketak; lankidetzak egokiak beste eragileekin; eta komunitatearen parte-hartzeak, oro har".

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

UNESCOren tokiko klubek sentsibilizazioa bultzatzen dute, bai hiriguneetan, bai landa-eremuetan, gambiar gazteak berdin arteko hezitzaile izan daitezen bultzatuz. Gizartea sentsibilizatzeko ahalegin horien bidez, 2.800 ikasletik gora trebatu ziren bakea eraikitzeko planteamenduen inguruan, gorrotoaren diskurtsoa eta muturreko narrazioak indargabetzeko.

ASPnet eskolen eta UNESCOren Kluben arteko lankidetzari esker, gazteek bultzatutako hainbat bake-klub sortu ziren, gambiar gazteen artean tolerantzia eta elkarrekiko errespetua sustatzen duten oinarritzko ekintzak gauzatzeko.

Aldi berean, eta ekimenak eragin iraunkorra izan zezan, Gambiako ASPnet ikastetxeetako irakasle eta bideratzaileei erakutsi zitzairen nola integratu bakerako hezkuntza eta genero-berdintasunerako jarduerak beren irakasgai eta ikasgeletan. Horrela lan

eginez, bai gazte taldeekin bai irakasleekin, proiektuak UNESCOren tolerantzia eta errespetu balioak txertatu zituen eskolan.

Azkenik, legeak betearazten dituzten erakundeek eta komunitate-buruek ere parte hartu zuten ekimenean, muturreko mehatxuei eta genero-indarkeriari modu eraginkorragoan erantzuteko trebakuntzaren bidez.

Laburbilduz, erakundeek eta herritarrek elkarrekin aritzean, gazteen eta emakumeen lidergoetan, proiektuari esker honakoa lortu zen: komunitatearen erresilientzia indartzea gorrotozko ideologia bortitzen aurrean, eta genero-berdintasunean aurrera egiteko konpromiso kolektiboa sendotzea. Gainera, sektoreen arteko lankidetzak eta partaidetza-planteamenduek aldaketa positiboa erraztu zezaketela eta gizarte-eragileen arteko konfiantza berreskuratzen lagun zezaketela frogatzen lagundu zuen.



3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

DANIMARKA, UNESCO ENBAXADORE GAZTEAK

UNESCOren [ASPnet Youth Ambassadors project](https://unesco-asp.dk/es/unesco-youth-ambassadors) izeneko proiektua⁵ Danimarkan garatua eta ezarria, gazteek zuzendutako bake-hezkuntzaren eredu bat da, eskolan oinarritua. Proiektu honen bidez, eskola-adineko ikasleek aktiboki sustatu ahal izango dituzte UNESCOk herritartasun globalari, garapen jasangarriari eta kulturen arteko ulermenari buruz dituen oinarritzko balioak.

Urtero, 14-19 urte bitarteko 16 ikasle motibatu aukeratzen ditu ASPnet Danimarkako Koordinatzaile Nazionalak herrialde osoko ASPnet Eskolen artean, Gazte Enbaxadore izateko. Hautatu ondoren, eta bi urteko misioari ekin aurretik, beste gazte eta irakasle batzuek trebatu eta lagundu egiten dituzte haien erantzukizunak beren gain hartzeko.

Gazte enbaxadoreen zeregin nagusia da herrialde osoko hainbat ikastetxetara bidaiatzea, irakasleen eta eskolako zuzendarien gonbidapena jaso ondoren, berdinen arteko ikaskuntza sustatzeko Garapen Jasangarriko 17 helburuen inguruan. Plataforma bat sortzen dute gazteek libreki eztabaidatu eta ikasteko, bai Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Agendari buruz, baita haien grina pizten duten beste gai batzuei buruz ere.

Proiektuaren helburu nagusiak ikasleei eta gazteei beren eskola-komunitatean ahotsa ematea eta gazteek UNESCOren balioekiko eta GJHekiko kontzientzia eta konpromisoa sustatzea dira.

ONDORIOAK

Eskualde eta testuinguru desberdinak izan arren, bi kasu hauek hari komun bat dute: gazteek ezagutza, ekintzailatza eta elkarriketarako eta lidergorako aukerak dituztenean, gizarte bidezkoago, inklusibo eta baketsuagoen laguntzaile aktibo bihurtzen dira.

Bestetik, laguntza ematen dute eguneroko irakaskuntza-jardueretarako. Esate baterako, GJHetan oinarritutako unitate didaktikoak sortzen laguntzen dute; edo ikaskuntza aktiboko esperientziak lortzen, UNESCOren Nazioarteko Jardunaldien inguruan antolatutako aurkezpen, tailer eta proiektuen bidez, eta ikasleei aukera ematen diete gure garaian eta adinean "herritar globala" izateak zer esan nahi duen ulertzeko. Ikaskuntza-espazio segurua, inklusiboak eta dinamikoak sortzen dituzte, ikasleek gai sentikorrak (indarkeria, gorroto-diskurtsoa, desberdintasuna eta diskriminazioa) taldean landu eta hausnartzeko. Irakasleek ikusten dutenez gazteek nola kudeatzen dituzten saio horiek eta nola azaltzen dituzten gai konplexuak, haiek ere ikasi egiten dute Gazte Enbaxadoreengandik.

Gazte Enbaxadoreen programak lidergo-modu eraikitzaileak ezartzen ditu, eta ikasleei interesatzen zaizkien gaiak aztertzeraz bultzatzen ditu, inguruko mundua eraldatzen laguntzeko.

Azkenik, gazteek gidatutako programa honek, GJHetan zentratuta, irakasle-ikasle harreman positiboak sustatzen ditu, eta gazteen ekintzailatza-sentimendua garatzen du, konpromiso zibikoari modu positiboan eraginez.

Enbaxadoreek berdinen arteko ikaskuntza errazten dute, konfiantza, enpatia eta elkarriketa irekia bultzatuz, bakerako hezkuntzaren funtsezko elementuak, alegia. Horrela, ekimenak gazteak prestatzen ditu zeregin aktiboa izan dezaten –gaur eta bihar– bake iraunkorraren baldintzak elikatzeko.

Gainera, ASPnet proiektu hauek erakusten dute bakearen aldeko hezkuntza tokiko errealitateetan txertatzeak duen balioa. Bakerako, Giza Eskubideetarako eta Garapen Jasangarriko Hezkuntzari buruzko Gomendioan azpimarratzen den bezala, bizitza osoan ikasteko, elkarriketa bilatzeko

⁵ <https://unesco-asp.dk/es/unesco-youth-ambassadors>.

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

eta giza eskubideak defendatzeko borondatean errotutako praktika bizia da bakea.

Bai Gambiako gorroto-diskurtsoari eta genero-desberdintasunari helduz, bai Danimarkan gazteek bultzatutako trukeen potentzial eraldatzailea irudikatuz, ASPnet ekimen hauek bakearen aldeko hezkuntzan, komunitatearen konpromisoan eta lankidetzan instituzionalean inbertsio iraunkorra egitearen garrantzia ere gogorarazten digute, bakearen eraikuntza hezkuntza-sistemen ezaugarri

iraunkorra izan dadin eta izaten jarrai dezan. Etengabeko konpromisoa da, ez inbertsio puntual bat.

ASPnetek bakearen aldeko hezkuntzaren ikuspegi hori gauzatzeko egiten duen ekarpena ez datza soilik bere irismen globalean, baizik eta tokiko pertsonak eta komunitateak ikastetxeen bidez lotzeko duen gaitasunean, benetako konfiantza, gizarte-kohesioa, errespetua eta mundu bidezkoago, inklusibo, iraunkor eta baketsuago baterako konpromiso arduratsua sustatuz.

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

6. BAKEAREN ALDEKO KULTURA- ETA ARTE-HEZKUNTZAREN BOTERE ERALDATZAILEA

EGILEA:

Cristina Cusenza. Hezkuntza eta Kulturako Ofizial Profesional Juniorra. Herriartasun Globalerako eta Bakerako Hezkuntza Atala, Hezkuntza Sektorea, UNESCO.



Kulturak eta hezkuntzak zehazten dute pertsonen nola interpretatzen duten mundua, nola ezartzen dituzten harremanak eta nola parte hartzen duten gizartean. Biek dute eragina balioetan, identitateetan eta azkar aldatzen ari diren inguruneetan moldatzeko gaitasunean. Ingurune horiek ezaugarri hauek dituzte: desinformazioa, diskriminazioa, ezegonkortasun sozial eta politikoa, ingurumen-disrupzioak eta eraldaketa demografikoak. Presio horiek zuzenean eragiten diote ikasleek hazteko, elkarri eragiteko eta beren etorkizuna irudikatzeko duten moduari, eta horrek agerian uzten ditu nagusiki ezagutzen transmisioan zentratutako hezkuntza-ereduen mugak. Sistemak errealitate horietara egokitu ahala, gero eta nabarmenagoa da baliabide kultural eta artistikoak aprobetxatzearen garrantzia. Kulturak eta arteek ikaskuntza ez ezik, konplexutasunean nabigatzeko eta aniztasunarekin modu eraikitzailean konprometitzeko funtsezko balio, disposizio eta gaitasunak garatzea ere bultzatzen dute. Esanahia arakatzeko, beren ingurua interpretatzeko, beren nortasuna adierazteko eta aniztasunarekin topo egiteko moduak eskaintzen dizkiete ikasleei, eta, hala, sormena, enpatia,

elkarriketa eta gizarte baketsu eta kohesionatuen oinarriak sustatzen dituzte.

Aintzatespen horrekin bat etorritik, UNESCOko Estatu Kideek kultura- eta arte-hezkuntzaren arloko politiketarako eta praktiketarako mundu-erreferentzia berria eskatu zuten. UNESCOren Kontseilu Exekutiboaren 2021eko erabaki baten ondoren, eskualde guztietako iritzia biltzeko partaidetza-prozesu zabal bat egin zen, 2.300 pertsonatik gora parte hartu zutelarik: ministerioetako kideak, hezitzaileak, kultura-erakundeak, artistak, indigenen jakintzen gordailuzainak, gazte-sareak eta gizarte zibilekoak¹. Haren ekarpenek agerian utzi zituzten bai praktika kultural eta artistikoen bizitasuna, bai bidezko sarbidea, koherentzia eta kalitatea mugatzen jarraitzen duten egiturazko oztopoak. Hezkuntza eraldatzeko konpromiso komuna ere berretsi zuten, ikasleak aniztasuna ulertzeko, desberdintasunak desberdintasun, errespetuz elkar eragiteko eta gizarte baketsu eta iraunkorren alde egiteko prest daudela bermatuz.

Prozesu hori amaitzeko, *Kultura- eta Arte-hezkuntzarako UNESCOren Esparrua*² onartu zen, 125 herrialdek baino gehiagok babestua, Abu Dabin (Arabiar Emirerri Batuak) 2024ko otsailean egindako Kulturari eta Hezkuntzari buruzko Munduko Konferentzian. Markoa mugarria da, eta arte-hezkuntzaren arloan aurretik nazioartean hartutako konpromisoetan oinarritzen da. *Arte Hezkuntzarako Lisboako Ibilbide Orria* (2006) eta *Seulgo Agenda: Arte Hezkuntza Garatzeko Helburuek* (2010) arteek kalitatezko hezkuntzari, kultura-aniztasunari eta gizarte-kohesioari laguntzeko duten zeregina berretsi zuten.

¹ [Kultura eta hezkuntza | UNESCO](#)

² [Kultura- eta arte-hezkuntzarako UNESCOren esparrua - UNESCOren Liburutegi Digitala](#)

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

Markoak kulturaren ikuskera zabalagoa eta holistikoagoa hartzen du, eta praktika artistikoen, ondare biziaren, kultura-adierazpenen eta ezagutza-sistemen espektro guztia ezagutzen du ikaskuntzarako funtsezko elementu gisa. Ikuspegi bat artikulatzen du, non kultura eta arteak ikaskuntza formalean, ez-formalean eta informalean txertatzen baitira, eta aintzat hartzen da inklusioaren, ongizatearen, gizarte-kohesioaren eta bakearen alde egiten duten lana.

Markoak zazpi printzipio gidari ditu oinarri, eta hezkuntza esanguratsu, zuzen eta kulturalki sentikor baterako baldintzak zehazten dituzte. Horien artean, inklusioak eta diskriminaziorik ezak ikasle guztiek aukera kultural eta artistikoez baliatzea bermatzearen garrantzia nabarmentzen dute. Hala ere, testuinguru askotan, egiturazko oztopoek sarbidea mugatzen jarraitzen dute, batez ere desgaitasuna duten ikasleei edo urrutiko inguruneetan edo baliabide gutxirekin bizi direnei. British Council-en «Learning to Change: The Role of Educational Institutions in Fostering Accessibility for Disabled Artists and Cultural Workers» (2023) lanak oztopo horiek Europan duten garrantzia nabarmentzen du, eta erakundeen erreforma iraunkor baten beharra azpimarratzen du. Bere ondorioetan, Markoak oztopoak ezabatzeko eta ikasle guztiek modu oso eta esanguratsuan parte hartzeko aukera izango duten ikaskuntza-inguruneak sortzeko politiken aldeko deia egin du.

Baterako sorkuntza da Markoaren beste printzipio giltzarrietako bat. Azpimarratzen du oso garrantzitsua dela alderdi interesdun ugari —hezitzaileak, artistak, kulturako profesionalak, komunitateak eta ikasleak berak— inplikatzeko programen konfigurazioan, tokiko kultura-testuinguruak eta -beharrak isla ditzaten. Esparruak, halaber, ikuspegi integratibago baten alde egiten du, kultura- eta arte-dimentsioak ikasketan, irakaskuntza-praktiketan, irakasleen prestakuntzan eta ikaskuntza-inguruneetan sar daitezten. Halaber, ingurune ez-formaletan eta informaletan zentratzearen garrantzia nabarmentzen du, hala nola museoetan, liburutegietan, kultura-zentroetan, antzokietan eta ondare-lekuetan; izan ere, eskola-ikaskuntzaren osagarri dira, kultura-partaidetzarako eta kulturen arteko elkarriketarako hainbat sarbide eskaintzen baitituzte.

Gainera, Markoak kultura- eta arte-hezkuntzako ekosistema koherenteen garapena gidatzen duten bost helburu estrategiko identifikatzen ditu. Horien artean daude sarbidea eta inklusioa indartzea, kultura- eta sormen-gaitasunak hobetzea, kultura-narratibetan parte-hartze kritikoa sustatzea, etorkizun jasangarri eta erresiliente baterako trebetasunak babestea eta baldintza egokiak finkatzea, hala nola gobernantza, finantzaketa, elkarlanak, ikerketa eta jarraipena. Oro har, ikuspegi egituratua proposatzen dute, herrialdeek kultura- eta arte-hezkuntza indar dezaten, askotariko beharrei erantzuteko moduan.

Esparrua onartu ondoren, UNESCOk tresna praktikoak garatzeari ekin zion, haren aplikazioa errazteko eta alderdi interesdunei laguntzeko bere printzipioak testuinguru bakoitzerako politika eta programa espezifiko bihurtzen. Horrek barnean hartzen du aplikazio-gida³ bat, zeina berriki aurkeztu baitzen 2025eko urriaren 1ean Bartzelonan, Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko Mundu Konferentzian (MONDIACULT). Gidak ikuspegi globala eskaintzen du, printzipio partekatu batzuetatik ekintza zehatzetara pasatzeko. Kulturak eta arteek beren hezkuntza-sistemetan duten tokiari buruz hausnartzera bultzatzen ditu herrialdeak, bai eta estrategiak, aliantzak edo erakundeen arteko akordioak zer arlotan indartu litezkeen identifikatzera ere. Arduradun politiko eta profesionalentzako galdera orientagarriak eskaintzen ditu, gomendio eta aholku zehatzak ematen ditu eta helburu estrategiko bakoitzerako espero diren emaitzak definitzen ditu.

Aplikazio-gida dokumentatzeko eta eskualde bakoitzean kultura- eta arte-hezkuntza nola aplikatzen den hobeto erakusteko, UNESCOk inkesta bat egin zuen 2025eko ekainean, eta 50 herrialdek baino gehiagok erantzun zuten. Inkestak indarguneen eta hutsune iraunkorren argazkia eskaini zuen, eta Gidan agertzen diren 52 adibideak biltzen lagundu zuen. Oro har, emaitzek agerian uzten dute ikuspegi nazionalen aniztasuna eta ekintza koherenteago eta iraunkorrago baten beharra.

Indarra hartzen ari den joera nabarmenetako bat irakasleen prestakuntzari dagokio. Erantzun duten herrialdeen % 77k adierazi dute irakasleei nolabaiteko prestakuntza ematen dietela kultura- eta arte-

3 [Kultura eta arte hezkuntzarako UNESCOren esparrua: aplikaziorako orientazioa - UNESCOren Liburutegi Digitala](#)

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

hezkuntzaren arloan, nahiz eta programa horien irismena eta maiztasuna nabarmen desberdinak diren. Etorkizun handiko ikuspegiaren artean daude Turkiako Irakaskuntza Informazioko Sare digitala, herrialde osoko hezitzaileei baliabide pedagogiko irisgarriak ematen dizkiena, eta arte indigenak ikasketa-planetan integratzea babesten duten Australiako ekimenak.

Eskolen eta kultur erakundearen arteko elkarrekin ere funtsezko zeregina dute. Herrialde askok museoek, antzokiek, liburutegiek eta ondareko guneek hezkuntzan egiten duten ekarpena nabarmendu zuten, ikasleei ikasketa esperientzialerako aukerak eskaintzen dizkietelako, ikerketan oinarrituta eta komunitatean errotuta. Hegoafrikan, Apartheidaren Museoak hausnarketa historiko kritikoa eta elkarriketa sustatzen ditu interpretazio gidatuaren bidez. Landa-eremuetan eta eremu behartsuetan, kultura-erakundeek gero eta gehiago jotzen dute kultura-unitate mugikorretara edo erakusketa ibiltarietara, kultura-esperientziatarako bidezko sarbidea bermatzeko.

Kulturak eta arteek gizarte-kohesioa eta erresilientzia indartzen dituzten adibideak ere aurkezten ditu gidak. Kamerunen, adibidez, UNESCOk laguntza eman zion gatazkek kaltetutako komunitateetako gazteen artean aniztasuna, inklusioa eta ongizate psikosoziala sustatzeko adierazpen artistikoa erabiltzen duen gida bat egiteari. Kolonbian, *Bakea Eraikitze Soinuak* programak musika mobilizatzen du komunitate-loturak indartzeko eta bakea finkatzeko prozesuak laguntzeko.

Badira beste adibide batzuk kultura eta ekonomia sortzailearen arteko loturak frogatzen dituztenak. UNESCOk eta Alwaleed Philanthropies-ek Argentinan eta Tanzaniako Errepublika Batuan sustatutako ekimenek artisau-trebetasun tradizionalen inguruko formazioa eta titulazioa eman dituzte, eta 1.000 ikasle baino gehiagorentzako enplegu-bide berriak sortu. Zenbait herrialdek lanbide-heziketako erakundearen eta kultura-enpresaren arteko lankidetzaren berri ere ematen dute, hezkuntza teknikoaren eta profesionalaren barruan sormen-trebetasunak indartzeko asmoz

garatuak. Ahalegin horiek bat datoz munduko joera orokorrenekin: kultura- eta sormen-industriek 2,3 bilioi dolarreko ekarpena egiten diote munduko ekonomiari, eta berrogeita hamar milioi pertsona ingururi ematen diete lana⁴. Horrek agerian uzten du enpresa horiek badutela aukera bizimodu jasangarria sustatzeko.

Aldi berean, badira gaintu gabeko erronka garrantzitsuak ere. Erantzun zuten herrialdeen % 10ek baino ez dute baieztatu ezgaitasunak dituzten ikasleek, hezkuntza-gutxiengok edo geografikoki isolatuta dauden komunitateek dituzten oztopoi aurre egiteko berariaz diseinatutako programak dituztenik. Irakasleen prestakuntza oso zabaldua dagoen arren, oraindik ere zailtasun handiak daude jarraitutasuna, kalitatea eta erakundearen babes egokia bermatzeko orduan.

Inkestan parte hartutako herrialdeen % 65ek jakinarazi zuten hezkuntza- eta kultura-ministerioen arteko lankidetzaren moduren bat bazegoela, baina % 25ek soilik dauzkate aurrerapenak ikuskatzeko jarraipen-sistemak, eta % 36k bakarrik adierazi zuten berariazko finantzaketa dagoela. Beraz, funtsezkoa da datu-sistemak, adierazleak eta epe luzeko plangintza indartzea. Indiako *Hezkuntzaren egoerari buruzko txostenak 2024*⁵ kultura- eta arte-hezkuntza izan zituen ardatz bakar, eta adibide ona da ikusteko zein egokia den monitorizazio metodo nazionalak izatea erabaki informatuak hartu eta inbertsioak bideratzen laguntzeko.

Markoaren ikusgarritasuna areagotu eta hobetzeko, UNESCOren Batzar Nagusiak berriki erabaki du UNESCOren Kultura eta Arte Hezkuntzaren Astearen berritzea; 2026tik aurrera ospatuko da, maiatzeko hirugarren astean. Urteroko ekitaldi honek plataforma bat eskainiko du nazio-mailako esperientziak ezagutarazteko, elkarriketa sustatzeko eta kultura- eta arte-hezkuntzaren ikuspegi berritzaileak erakusteko. Aldi berean, UNESCO jardunbide egokien mundu-biltegia eta jarraipen-mekanismoa garatzen ari da, epe luzeko aplikazioa babesteko eta herrialdeen artean parekoen arteko ikaskuntza indartzeko.

4 UNESCOren txostena, kultura- eta sorkuntza-industrietako gaitasunen garapenari buruzkoa (2025)

5 <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000392331>

3. BLOKEA:

Hezkuntza tresnak eta praktikak

Kultura eta Arte Hezkuntzarako Esparruak eta horren Ezarpen Gidak erreferentzia komun bat eskaintzen dute, eragile ugarien artean etengabeko gogoeta, lankidetzak eta berrikuntza bultzatzen dituzkeena. Praktikaren bidez eboluzionatzeko diseinatutako tresnak dira, interesa duten alderdiak animatzen dituztenak beren ikuspegiak egokituz, esperientziak partekatuz eta hezkuntzaren dimentsio kultural eta

artistikoetan sakontuz, beren errealitateekin bat egin dezaten. Tresna horiekin konpromisoa hartzean, munduko komunitateak mugimendu zabala bultzatzen lagun dezake, kultura eta sormena hezkuntzaren erdigunean jarriko dituen eta, horrekin batera, gizarte kohesionatuago eta baketsuago batzuen oinarriak sendotuko dituen.

4. BLOKEA: Tokiko ikuspegia

7. BAKERAKO HEZI. PENTSAMENDU KRITIKOA, TOKIKO ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISO GLOBALA

EGILEA:

Maria Oianguren Idigoras. Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroko zuzendaria.



SARRERA

Gero eta militarizatuago eta digitalizatuago dagoen mundu global honetan, hezkuntzak berebiziko garrantzia du, eta ezinbesteko faktorea da bake-

kultura sendotzen laguntzeko. UNESCOk, "Bake iraunkorrerako ikasi" lelopean, 2024ko Hezkuntzaren Nazioarteko Egunean azpimarratzen du.

Euskal hezkuntza-sistemak, 2030 Agendaren nazioarteko esparruarekin bat eginik, kalitatezko hezkuntza bermatu nahi du, inklusioaren, ekitatearen eta aniztasunaren printzipioetan oinarrituta, desberdinkeria eta diskriminazioari aurre egiteko. Hezkuntza-erronka hori tokian-tokian txertatzen da, eta euskal esperientzian bizikidetzak eta giza eskubideak sustatzeko hezkuntza-berrikuntza ekarri zuen. Gainera, indarkeria politikoaren biktimen lekukotza ere izan genuen, beste hezkuntza-proposamen batzuekin batera iragan gatazkatsu baten historiari eta memoriari heltzeko. Aurrerapen garrantzitsua izan zen; izan ere, hezkuntza-curriculumean txertaturik, funtsezkoa izan zen gizarte bidezkoagoak eta kohesionatuagoak eraikitzeko beharrezkoak diren pentsamendu kritikoari, enpatia eta ekintza etiko arduratsuari laguntzeko.

BAKEAREN ALDEKO HEZKUNTZA

Bakearen kulturak hezkuntza eraldatzailerako esparrua eskaintzen du, gizarte-aldaketara bideratutako ekintzekin batera.¹ Mende honen hasieran, alternatiba eraldatzaile eta indarkeria-ezazkoari heltzeaz gain, gatazken ikuspegi integrala txertatzen du, botere-dinamikak aztertzen dituen eta bizitzaren bilbeari eusten dion interdependentzia-harremana onartzen duena. Bere agendan gaitasunen ikuspegia eta giza beharrak gizarte- eta ingurumen-justiziaren irizpideekin betetzen direla bermatzeko ekintza kolektiboa sartzen ditu. Patriarkatua, eredu antropozentrikoak, androzentrikoak eta eurozentrikoak kontzienteki aztertzen dira ikuspegi feminista eta dekolonialetik.

Giza eskubideen agenda bere osotasunean dimentsionatzen da. Baldintza sozial eta ekonomikoei dagozkien eskubide zibil eta politikoak, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak beharrezko tresna bihurtzen dira bizitzak duina, bidezkoa eta iraunkorra bermatzeko. Justiziarekin, bakearekin, elkartasunarekin, kultura-ondarearekin eta ingurumen osasungarriarekin lotutako hirugarren belaunaldiko eskubideak funtsezkoak dira. Pertsonetik, beste bizimodu batzuekiko eta bizi garen ingurunearekiko errespetuan hezteak ekosistema bizi bateko eta planeta osoko kide izatearen kontzientzia zabaltzen du.

¹ Oianguren, María (2024): [Bakearen kultura hezkuntza eraldatzailerako](#). Vitoria-Gasteiz: Elankidetzak.

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

Gainera, egiaztatu da militarismoak, armen fabrikazioak eta merkataritzak larriagotu egiten dituztela gerraren eta gatazka armatuen ondorioak, bai horiek pairatzen dituzten herrietan, bai eta haien ingurumen-inpaktuan ere. Kontzientzia-, zerga-, lan- edo zientzia-eragozpena edo militarismoari aurre egiteko beste edozein modu sustatzea gizakion adimenak eta bizitza bera desmilitarizatzen laguntzen duten ekintzak dira.

Aktibismo sozialaren esparruan, gastu militarren igoera salatzen da. Sentsibilizazio-kanpainak egiten dira gastu sozialean inbertitzeko beharra erakusteko, baita suntsipen handiko armak legez kanpo uzteko eta armak murrizteko ere. Industria militarra industria zibil bihurtzea helburu egingarria da.

Ikuspegi ekosozialak errenta distributiboaren beharra azpimarratzen du, gero eta handiagoa den desberdinkeria soziala eta oinarritzko baliabideen eskuragarritasuna iraultzeko. Bidezko fiskalitatearen aldeko hezkuntza-kanpainak jarri dira abian. Eta ekimen berriak jarri dira martxan, besteak beste, banka etikoa, bidezko merkataritza eta ekonomia sozial eta solidarioa. Bake-ekonomia ere exijitu da, pertsonen eta planetaren zerbitzura egongo den ekonomia, alegia.

Salaketa eta eragin politikoaren eremuan, kontzientziazioa eta indarkeriarik gabeko borroka hartzen da indarkeriazko, bidegabekeriak eta botere-abusuzko egoerak eraldatzeko modurik etikoena eta eraginkorren modura. Intzidentzia-ekintzak antolatzen dira, manifestazioen, erresistentzia baketsuaren eta desobedientzia zibilaren bidez.

MEMORIAREN PEDAGOGIARAKO HEZKUNTZA-POLITIKAK ETA GIZARTE-EKIMENAK

Euskal Herrian bakearen aldeko gizarte-mobilizazioak 80ko hamarkadan hasi baziren ere, hezkuntza-proposamenak hurrengoan agertu ziren, 90ekoan. Esate baterako, 1998an aurkeztu zen programa hau: *Bakerako Hezi, Euskal Autonomia Erkidegoan Bakearen aldeko Hezkuntza sustatzeko eta garatzeko oinarriak eta proposamenak*. Ondoren etorri ziren *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana*, batetik, *Bakerako Urratsak* unitate didaktikoak bestetik, eta *Arrastoa uzten duguten Historiak* 2005-2009an. 2010ean, Biktima Hezitzaileen Programa atondu zen, ahaleginak areagotu ziren printzipio komunak ezartzeko, eta gizarte-eragileekin lankidetzan indartu egin zen. Pixka bat aurrerago etorri ziren *Bake eta Bizikidetzaren Plana 2013-2016*; *Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020*; eta *Udaberri. Bizikidetzaren, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana* 2020-2024.

Esolan eta unibertsitatean, berriz, honakoa bezalako ekimenak abiatzen dira: *Adi-adian Hezkuntza Modulua*. *Giza duintasunari, bizikidetzari eta enpatiari buruzko ikasketak, biktimen testigantzak entzuteko*

esperientziaren bidez, Bakeolak eta Baketik-ek EHUn landua. Bai eta Deustuko Unibertsitateak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2019an bultzatutako programa hau ere: *Historia irakasteari eta bake-kultura eraikitzeari buruzko Ikasketa-komunitatea*.

Gizarte edo komunitate-mailan ere elkarrikeria-gune ugari egituratu dira, indarkeriak euskal gizartean eta bizikidetzan izandako eraginei heltzeko. Adibidez, *MemoriaLab*. *Memoria eraikitze 2013-2018*² ekimena, Gernika Gogoratuzek, Gernikako Bakearen Museoak eta Bakeola-EDE Fundazioak koordinatua. Bestetik, hor dugu *Afaloste bizikidetzaren pil-pilean*. *Laborategi gastronomiko-soziala*³ eta, pandemia garaian, *Afaloste On 2018-2024an*, Eskubidez elkartearen eskutik koordinatzen dira. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Erakundearen Foroa. Bestalde, Baketik-ek eta Bakeolak ere tokiko bizikidetzaren prozesuak garatzen dituzte, eta *Bidelagun* programak elkarrikeria prozesuak laguntzen ditu hainbat udalerritan.

2 Retolaza, I.; Momoitio, I.; Salazar, R.; Oianguren, M. (2019): [MemoriaLab. 2013-2018 memoria eraikuntza sozialerako ekimena](#). Gernika-Lumo: Gernika Gogoratuz.

3 Retolaza, I.; Momoitio, I.; Salazar, R.; Oianguren, M. (2021): [Afaloste. Elkarbizitza pil-pilean. Laborategi gastronomiko soziala](#). Bilbo: Eskubidez.

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

BAKEAREN KULTURARI EGINDAKO EKARPENAK, EUSKAL ESPERIENTZIATIK ABIATUTA

Ekimen asko bultzatu dituzte euskal elkarteek. 2022an, adibidez, ICIP (Nazioarteko Bakearen aldeko Kataluniako Institutua) saria jaso zuten, *bakeak aurrera egiten, indarkeria amaitzen eta bizikidetza eta adiskidetze esparru berriak sortzen laguntzeagatik*. Nabarmentzekoa da, halaber, Nazio Batuek euskal ekimenak eta, bereziki, Euskal Herriko UNESCOrekin elkartutako Eskolen Sarea errekonozitu izana, 2025ean bakean, giza eskubideetan eta justizia sozialean oinarritutako hezkuntza eraldatzailea sustatzeagatik.

Aintzatespen horiek argi erakusten dute bakearen aldeko hezkuntzarekin eta garatutako ekintza ugariarekin konprometitutako hezkuntza-erakundeen sare zabala dagoela Euskal Herrian. Eta bide horretan hiru ikaskuntza nagusi nabarmentzen ditugu. Lehenenik pertsonen, erakundeen eta instituzioen arteko zubiak eraikitzearen garrantzia, bizikidetza berritzeko askotariko ekimenen bidez lankidetzasareak ezartzeko. Bigarrenik topaguneak ireki behar direla indarkeriak pertsonen bizitzan dituen ondorioei eta elkarteetan duen eraginari aurre egiteko; baita memoria bake-pedagogiaren ariketa gisa sendotzen laguntzeko ere. Hirugarrenik aliantza publiko-komunitarioek bakearen kultura, giza eskubideak

eta memoria demokratikoa sustatzen dituzten politika publikoak instituzionalizatzeko duten balioa. Ikaskuntza horiek, gainera, hezkuntza-praktika gisa balio izan dute beste testuinguru batzuetan. Hori da Kolonbiako Bake Eskolak Fundazioaren kasua, euskal esperientzian oinarritu eta *Gida metodologikoa* egin baitzuen 2022an: *Memoria eta egia topaketak. Bizitzarako memoriak*⁴.

Azken batean, gizarte osoari interpelatzen dioten ekintzak bultzatzen dira: herritartasun kritikoa eraikitzea, komunaren balioa berreskuratzea, loturen garrantzia gogoratzea eta elkartasunari balioa ematea.

Bakerako hezi. Harremanen subjektibotasunak berreraiki eta gerraren eta desberdikeriaren saihestezintasunaren narratibak zalantzan jarri. Ekimen kolektiboa berreskuratu eta polarizazioaren eta gorrotoaren narratibak desartikulatu. Horiek guztiak beharrezkoak dira bestelako munduaren espazioetan bizitzeko, etorkizun askatzaileak elkarlanean irudikatzeko. Konpromisoa ezinbestekoa da, saihestezina.

4 González, Luisa Fernanda eta Retolaza, Iñigo (arg.) (2022): *Gida metodologikoa: memoria eta egia topaketak. Bizitzarako memoriak*. Bogotá: Bakearen eta Adiskidetzaren aldeko Herriarren Prestakuntza Ekimenak Aliantza. Fundación Escuelas de Paz eta Fundación la Paz Querida.

4. BLOKEA: Tokiko ikuspegia

8. ARTE- ETA KULTURA-HEZKUNTZA EUSKADIN

EGILEA:

Begoña Guzman Sanchez. UN Etxea-ko kultura arduraduna



Arte- eta kultura-hezkuntza ez da curriculumaren osagarri apaingarria: inklusiorako, sormenerako, herritartasun demokratikorako eta garapen jasangarrirako palanka estrategikoa da. EAEn, UN Etxeak eta lurraldeko ikastetxeek bultzatutako hainbat argitalpen eta esperientziek erakusten dute nola arte- eta kultura-hezkuntzak jakintzak integratzen dituen, parte-hartzea aktibatzen duen eta norbanakoaren eta komunitatearen ongizatea hobetzen duen.

ESKUBIDEETAN, CURRICULUMEAN ETA GIZARTE-ERALDAKETAN OINARRITUTAKO IKUSPEGIA

Artea, hezkuntza eta garapena. Arte-hezkuntza euskal gizarte- eta hezkuntza-eremuan¹ argitalpenak hiru gako laburbiltzen ditu ondo ulertzeko zer den **arte-hezkuntza euskalekosisteman**: (1) UNESCOren eta Nazio Batuen esparruetan duen kokapena, (2) curriculumean duen integrazio maila (3) ikaskuntza esanguratsuak, zeharkakoak eta hezkuntza-kalitatearekin lotutakoak sortzeko gaitasuna. Lan horrek zehazten duenez, arte-gaiak —antzerkia, ikus-entzunezkoa, musika, dantza eta ikusizko arteak, besteak beste— derrigorrezko edo aukerako eduki gisa antola daitezke, informazio- eta komunikazio-teknologiaren (IKT) erabilera kritikoa susta daiteke, eta ikasleen prestakuntza-ebaluazioa indartu, euskal curriculumaren funtsezko gaitasunekin bat eginez.

Hori bai, eraldatzeak zera ere eskatzen du: aldaketa neurtzea. Horretarako, UN Etxeak **adierazle-gida**

bat proposatu zuen, Lehen Hezkuntzan arte- eta kultura-hezkuntzako programak ebaluatzeko², bost helbururekin: ikasleen kompetentziak; hezkuntza-komunitatearen garapena; ingurunearen sentsibilizazioa; inplikaturako kultura-eragilearen sendotzea; eta proiektuaren aurrekontu-egonkortasuna. Tresna hori irakasle, bitartekari eta unibertsitateekin egin da (ARTikertuz-EHU³), eta aukera ematen du datuak praktikatik jasotzeko eta arte-hezkuntza gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin lotzeko.

Tokiko ikuspegi horrek nolabaiteko elkarrikketa edo lotura du Mondiacult 2025ekin, hau da, Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren Munduko Konferentziako nazioarteko prozesuarekin, non UNESCOk kultura garapen jasangarrirako eta bakerako indar gisa kokatu zuen; lotura du, baita ere

1 Guzmán Sánchez, B. (2018). *Artea, hezkuntza eta garapena: Arte-hezkuntza euskal eremu sozio-hezitzailean* (3. lan-koadernoa). UNESCO Etxea. Hemen-dik berreskuratua: https://unetxea.org/dokumentuak/arte_educacion_desarrollo.pdf

2 Guerra, R., Gulin, O & Teklak. (2020). *Gizartea eraldatzeko arte- eta kultura-hezkuntzako programen ebaluazio-adierazleak: Lehen Hezkuntza* (4. lan-koadernoa; koord.: B. Guzmán, E. Quiroga & J. Domínguez). UNESCO Etxea. Hemen-dik berreskuratua: https://unetxea.org/dokumentuak/indicadores_educ_art.pdf

3 <https://www.artikertuz.es/>

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

EAEko ekimen batzuekin, hala nola “**Ahots Batuak**”⁴ ekimenarekin, eta kultura- eta hizkuntza-aniztasunari

buruzko “18. helburua” sustatzearekin, 2030etik aurrerako agenda globalean.

EUSKADIKO KASU INSPIRATZAILEAK

*Kultura- eta arte-hezkuntza. Kasu inspiratzaileak. UNESCOren Eskola Elkartuen Sarea. MONDIACULT 2025era bidean*⁵, hainbat proiektu biltzen dira arteak eta ondareak ikaskuntzak eta herritartasun kritikoa aktibatzen duten potentziala agerian uzten dutenak. Azpimarratzekoak dira behean aipatzen ditugun hiru esperientziak; izan ere, sorkuntza artistikoak memoria, ondarea, identitatea eta bizikidetzaren nola lantzen dituen erakusten duten, ikasgela eta komunitatea lotuz.

- > **Tradiziotik bihotzera** programak (Toki Alai BHI, Irun) euskal musika-ondarea biziberritzen du, ikerketaren eta ikus-entzunezko sorkuntzaren bidez. Ikasleek tokiko errepertorioak ikertzen dituzte, piezak konposatu edo berrinterpretatu egiten dituzte, eta auzotarrekin partekatu, komunikazio-gaitasunak, gaitasun digitalak eta talde-lanekoak indartuz, belaunaldien arteko loturaz gain.
- > **Gernikako Oihua** ekimenak (Berrio-Otxoa, Bilbo) artea darabil —Gernikako bonbardaketaren oroimenak inspiratua— bakearen eta giza eskubideen kultura lantzeko. Diziplina arteko jarduerak (plastikoak, eszenikoak, ikus-entzunezkoak) historia eta oraina lotzen dituzte, eta indarkeriaren aurrean enpatia eta pentsamendu kritikoa sortzen dituzte.

- > **Ondare UP! Otxarkoaga** proiektuak (Otxarkoaga Prestakuntza Zentroa, Bilbo) auzoko ondarea ikuspegi kritiko eta kulturartekotik aztertzen gonbidatzen ditu gazteak. Horren emaitza kontakizunak eta topaguneak dira, espazio komunei balioa ematen dietenak, errotzea indartzen dutenak eta estigmak desmuntatzen dituztenak, ikaskuntza-zerbitzu eta bitartekaritza kulturalen metodologiekin.

Esperientzia horiek **UNESCOren Eskola Elkartuen Sarean (redPEA)** sartzen dira —12.000 zentro baino gehiago 182 herrialdetan—. Sare hori garapen iraunkorrerako hezkuntzaren, herritartasun globalaren eta ondarearen kultura arteko ikaskuntzaren berrikuntza pedagogikorako laborategi bizia da. Euskal Autonomia Erkidegoan 16 ikastetxe ditugu sareari atxikita, eta horien koordinazio autonomikoa UN Etxeak hartzen du bere gain.

Era berean, MONDIACULT 2025erako euskal ibilbideak **bake-kultura** sartu du artearen, memoriaren eta bizikidetzaren arteko harremanaren ardatz gisa. *Hezkuntza, Arteak eta Herritartasuna VIII*. Mintegiaren kontakizunak ⁶—euskal kasu inspiratzaileekin— kultura proposatzen du garapenaren laugarren zutabe gisa, eta artibismoa, musika, arte eszenikoak, moda, poesia eta ikus-entzunezko jarduerak dokumentatzen ditu, gizarte-kohesioa eta aniztasunaren onarpena indartzen dituztenak.

4 <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2025/euskadi-impulsa-ods-18-ahots-batuak-alianza-global-protoger-diversidad-cultural-y-linguistica/>

5 Guzmán Sánchez, B. (2025). *Kultura eta arte hezkuntza: Kasu inspiratzaileak. UNESCOren Eskola Elkartuen Sarea. MONDIACULT 2025era bidean*. UN Etxea. Hemendik berreskuratua: <https://unetxea.org/portfolio-item/educacion-cultural-y-artistica-casos-inspiradores-red-de-escuelas-asociadas-de-la-unesco-camino-a-mondiacult-2025/>

6 Guzmán Sánchez, B. (2025). *Bakearen kultura. Hezkuntza, Arteak eta Herritartasuna VIII. Mintegia. Euskadiko kasu inspiratzaileak. MONDIACULT 2025erako bidean*. UN Etxea. Hemendik berreskuratua: <https://unetxea.org/portfolio-item/cultura-de-paz-viii-seminario-educacion-artes-y-ciudadania-casos-inspiradores-del-pais-vasco-camino-a-mondiacult-2025/>

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

ZERGATIK DIRA HEZKUNTZA PRAKTIKA HAUEK ERALDATZAILEAK?

Arte- eta kultura-hezkuntzak bere ahalmen eraldatzailea gauzatzeko ezinbestekoa du metodologia aktibo eta kokatuetatik artikulatzea, testuinguruaren galdera errealetatik abiatuz — ondarea, memoria, auzoa, identitateak— eta ikasgela lurraldera irekitako espazio bihurtuz, non arteak hurbilekoa ulertzeko eta eraldatzeko hizkuntzak baitira. Ikuspegi hori eskubideen eta 2030 Agendaren ikuspegian oinarritzen da, eta proiektuak helburu globalekin lerrokatzen ditu, hala nola GJH 4 (kalitatezko hezkuntza), GJH 5 (genero-berdintasuna), GJH 11 (hiri eta komunitate iraunkorrak) eta GJH 17 (aliantzak), eta bat egiten du kultura garapenerako helburu espezifiko gisa onartzen duen nazioarteko eztabaidarekin.

Horren eragina bermatzeko, funtsezkoa da adierazle bidezko ebaluazioa: izan ere, eragile kultural eta artistikoen konpetentziak, komunitatean dituzten eraginak eta iraunkortasuna neurtzeak aukera ematen baitu praktikak hobetzeko, haien balio publikoa onartzeko eta eskolaren, kultura-sektorearen eta administrazioaren arteko aliantzak finkatzeko.

Azkenik, irakaskuntza-prestakuntza eta bitartekaritzaren indartua funtsezko baldintzak dira aldaketa pedagogikorako: eskolak artistekin eta bitartekariekin lan egiten duenean, errepertorio didaktikoak zabaltzen

dira eta ikasleen sormena loratzen da, ikaskuntza esanguratsuak eta herritar konprometituak sortuz.

Gomendioa argia da: hezkuntza artistiko eta kulturalen inbertitzea justizia sozialean, aniztasunean eta etorkizun iraunkorrean inbertitzea da. Ikuspegia finkatzeko, zera komeni da: (a) denbora eta arte ikasgaiak ziurtatzea maila guztietan, beste arlo batzuekin zeharka integratuta; (b) kultura-bitartekaritzari eta lurraldeko eragileen presentziari eustea ikastetxeetan; (c) adierazle bidezko ebaluazioa orokortzea, emaitzen itzulkin publikoarekin; eta (d) proiektuak nazioarteko esparruekin lerrokatzea, hala nola arte- eta kultura-hezkuntzari buruzko UNESCO Markoarekin edo MONDIACULTekin, kultura helburu eta eskubide gisa jarritz, eta kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aherastasun komuna aitortuko duten tokiko politikekin.

Egindako bideak erakusten du artea eskolan sartu eta eskola lurraldera ateratzen denean galderak aldatu egiten direla, loturak indartu eta aukera berriak sortu. Arte- eta kultura-hezkuntzak ikaskuntza esperientzia bihurtzen du, oroimena konpromiso, eta aniztasuna, azkenik, berrikuntza demokratikoaren eragile.

4. BLOKEA: Tokiko ikuspegia

9. NAZIOARTEKO ESPARRUAREN APLIKAZIOA EUSKAL CURRÍCULUMEAN (77/2023 DEKRETUA)

EGILEA:

Eva Quiroga Vázquez. UN Etxeako hezkuntza teknikaria.



Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak Euskal Hezkuntza Sistema egituratzen duten hiru ardatz nagusi ezartzen ditu: **izatea, jakitea eta elkarrekin bizitzea.**

Izatearen ardatza pertsona autonomoak, kritikoak eta arduratsuak prestatzea da, egungo munduaren konplexutasunari irizpide propioarekin, sormenarekin

eta enpatiarekin aurre egiteko gai direnak. Jakintzaren ardatzak ezagutzak errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko tresna gisa duen balioa azpimarratzen du, pentsamendu kritikoa, ebidentziarekiko errespetua eta kontzientzia etikoa sustatuz. Bizikidetzaren ardatzak, bere aldetik, ikasleak gizarte-bizitzan parte-hartze aktiboa eta arduratsua izateko prestatzea azpimarratzen du, balio demokratikoak, elkarriketa eta gatazken konponbide baketsua bultzatuz.

Ardatz horiek, eta, batez ere, elkarrekin bizitzekoak, zuzenean egiten dute bat Bakerako Hezkuntzaren printzipioekin, bizikidetzak baketsua, lankidetzak eta gatazken indarkeriarik gabeko kudeaketa sustatzen baitute hezkuntzaren ikuspegi integral batetik.

Era berean, Derrigorrezko Hezkuntzaren esparruan, printzipio horiek 77/2023 Dekretuaren bidez zehazten dira (77/2023 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezarri eta ikastetxeek garatu beharreko curriculum-esparrua zehazten duena). Horrenbestez, atal honetan arau-esparru hori berrikusiko da, Bakerako Hezkuntzaren nazioarteko esparruari dagokionez, Euskadiko ikasgeletan ezartzen laguntzeko.

GINARRIZKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK (77/2023 DEKRETUA, 7. ARTIKULUA):

- a) Bere betebeharrak ulertzea eta arduraz onartzea, bere eskubideak ezagutzea eta egikaritzea besteekiko errespetuan, tolerantzia, lankidetzak eta elkartasuna praktikatzeko pertsona eta taldeen artean, elkarriketan aritzea giza eskubideak gizarte anitz baten balio komun gisa sendotuz, eta herritartasun demokratikoa gauatzeko prestatzea.
- j) Kulturaren eta euskal kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, baloratzea eta errespetatzea, baita historia orokorra/unibertsala eta ondare artistikoa eta kulturala ere.
- n) Gizadiaren arazo nagusiez eta garapen iraunkorreko helburuetan zehazten direnez jabetzea.

4. BLOKEA: Tokiko ikuspegia

ARLO BAKOITZAREN BERARIAZKO GAITASUNAK ETA BAKERAKO HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO ESPARRUAREKIKO HARREMANA:

LEHEN HEZKUNTZA

Ingurune naturala, soziala eta kulturala ezagutzea:

8. Genero-aniztasuna eta -berdintasuna aitortzea eta balioestea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsiz, gai etikoei buruzko hausnarketa kritikoa eginez, etengabe aldatzen ari den gizartearen ongizate indibiduala eta kolektiboa lortzen laguntzeko eta European bizikidetza baketsua eta errespetuzkoa lortzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG 1, HKG2, HKG5, GE1, GE3, GD1, GD2, GD3, GPSII3, HG1, HG2, HG3, CEC1, CEC2.
9. Gizarte-ingurunean eraginkortasunez eta modu eraikitzailean parte hartzea, Europako, Estatuako eta autonomia-erkidegoko legeriak bultzatutako Adierazpen Unibertsalek eta printzipio demokratikoek markatutako balioak errespetatuz, erakunde demokratikoek bakeari eta segurtasunari eusteko duten funtzioa baloratzuz, errespetuzko harremanak sortzeko eta gatazken kudeaketa baketsua eta elkarriketatua sustatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG5, GE3, GD1, GD2, GD3, GPSII1, HG1, HG2, HG3, CEC1.

Arte-hezkuntza:

1. Hainbat kultura, garai eta estilotako proposamen artistikoak ezagutzea, harrera aktiboaren eta tresna digitalen erabileraren bidez, jakin-mina, sentsibiltatea, errespetua eta pentsamendu kritikoa garatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: GE3, STEM1, GD1, GPSII3, HG1, EG2, KAKG1, KAKG2.
2. Askotariko inguruneen ondarea osatzen duten kultura- eta arte-adierazpenak ikertzea, metodo zientifikoa erabiltzen hasita eta hainbat kanal eta bitarteko erabilita, norberaren pentsamendua eta kultura-nortasuna hainbat testuingurutan garatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG3, GE3, STEM2, GD1, HG3, KAKG1, KAKG2.

Balio zibiko eta etikoetan hezte (Lehen Hezkuntzako seigarren maila):

1. Nork bere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruz hausnartzeko jarrera sortuz, norberaren nortasuna eraikitzeko autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG2, HKG3, GD1, GD4, GPSII4, HG1, HG2, HG3, GPSII 1, GPSII2, KAKG3.
2. Arau eta balio zibikoei eta etikoei buruz hausnartzea eta argudiatzea, norbanakoaren eta taldearen bizitzarako duten garrantzia aitortuz, eta modu eraginkorrean eta hainbat testuingurutan argudiatuz, bizikidetza baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG5, GE3, GD3, GPSII3, GPSII4, HG1, HG2, HG3, EG1, KAKG1.
3. Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harreman sistemikoak aztertzea, arazo ekosozialei buruzko ezagutzaren eta hausnarketaren bidez, pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin bat datozen balio eta praktikekin aktiboki konprometitzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG2, HKG5, GE1, GE2, STEM5, GD1, GD4, GD5, GPSII2, HG2, HG3, HG4, EG1.
4. Bere burua zalantzan jartzeko eta argudiatzeko trebetasunagaratzea, pentsamendu abstraktuaren oinarri diren pentsamendu-trebetasunak erabiliz, diziplinaren oinarritzko jakintzekin zerikusia duten elkarriketa kooperatiboetan parte hartzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG3, HKG5, GE3, STEM1, GPSII1, GPSII3, GPSII4, GPSII5, HG1, HG2, HG3, EG1, EG3, KAKG4.
5. Autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteenak

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

ezagutuz eta baloratzuz, norberaren, besteen eta naturaren zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG5, GPSII1, GPSII2, GPSII3, GPSII4, HG2, HG3, HG4, EG3.

Atzerriko hizkuntza:

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna balioestea eta errespetatzea, eta hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatzea eta balioestea, kulturen arteko egoerak kudeatzen ikasteko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG2, HKG5, GE3, GD1, GD2, GD3, GPSII1, GPSII3, HG3, KAKG1, KAKG3.

Euskara eta literatura, eta gaztelania eta literatura:

6. Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea eta kontrastatzea, modu planifikatuan, haren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak antzemanaz, ezagutza bihurtzeko eta modu sortzailean komunikatzeko, ikuspegi pertsonala eta jabetza intelektualarekiko errespetuzkoa hartuz. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG3, GD1, GD2, GD3, GD4, GPSII5, HG2, EG3.

BIGARREN HEZKUNTZA

Balio zibiko eta etikoetan hezteak:

1. Norberaren nortasunari eta bizi-proiektuari berari buruzko gai etikoei buruzko guztia ikertzea eta ikertzea, eta horri buruzko gogoeta egitea, autoezagutza sustatzeko eta planteamendu eta iritzi moralak autonomiaz eta arrazoituz lantzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG2, GD1, GPSII1, HG1, HG2, HG3.
2. Ingurune analogiko eta digitaletan jardun eta elkarreraginean aritzea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioen arabera, arau eta balio zibikoei eta etikoei buruz hausnartzeko, bizitza komunitarioa arautzeko

10. Komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz, hitzaren bidez botere-abusuak hautemanaz eta baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik etikoa ere errazteko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG5, GE3, GD3, GPSII1, GPSII3, HG1, HG2, HG3.

Matematika:

2. Problematizatutako egoerak ebatzea, hainbat teknika, estrategia eta arrazoitze modu aplikatuta, hainbat modu aztertze, irtenbideak lortzeko eta ikuspuntu formaletik eta planteatutako testuinguruaren arabera horien baliozkotasuna ziurtatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG3, STEM1, STEM2, GPSII5, EG2, EG3, KAKG4.
8. Trebetasun sozialak garatzea, besteen emozioak, esperientziak eta aniztasunaren balioa ezagutuz eta errespetatuz, eta rol esleituak dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitze, norberaren ongizatea sustatzeko eta harreman osasungarriak sortzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG2, HKG5, GE3, STEM3, STEM5, STEM6, GPSII1, GPSII3, GPSII5, HG1, HG2, HG3, EG2, EG3.

eta hainbat testuingurutan modu eraginkorrean eta justifikatuan aplikatzeko duten garrantziaren onespenez funtsatutik abiatuta, bizikidetzaren baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onarekin aktiboki konprometitua sustatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG5, GD3, GD5, HG1, HG2, HG3, HG4, KAKG1.

3. Giza jardueren izaera interkonektatua eta interdependentea eta ekodependentea ulertzea, garrantzi handiko arazo ekosozialak identifikatuz eta aztertuz, bizimodu jasangarriak lortzearekin etikoki konprometitutako ohiturak eta jarrerak sustatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: STEM5, GPSII2, HG1, HG2, HG3, HG4, EG1.

4. Norberaren eta ingurunearen estimu egokia erakustea, norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak ezagutuz eta baloratzuz, besteekiko eta naturarekiko jarrera enpatikoa, asertiboa, erresilientea eta zaindua lortzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, GPSII1, GPSII2, GPSII3, HG1, HG3, KAKG3.

Euskara eta literatura, eta gaztelania eta literatura:

10. Komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazken elkarriketa bidezko kudeaketaren eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiliz eta botere-abusuak baztertuz, hitzaren bidez, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa eta demokratikoa ere ahalbidetzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG5, GE3, GD3, GPSII3, HG1, HG2, HG3.

Geografia eta historia:

3. Historian zehar eman diren antolamendu politiko motak azaltzea, sistema demokratikoen eta horien oinarritzko legeen eraikuntzara iritsi arte, konstituzioetara iritsi arte. Horretarako, gure komunitate-bizitzaren berezko betebeharrak eta eskubideak bereganatuko ditugu, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG5, GE3, HG1, HG2, KAKG1.
4. Gizarte desberdinek denboran zehar izan dituzten erronka nagusiak ezagutzea, gertatutako aldaketen eta gaur egun dituzten arazoen kausak eta ondorioak identifikatuz, ikerketa-proiektuak garatuz eta informazio-iturri fidagarriak erabiliz, errealitatea ulertzeko eta egungo erronkei aurre egiteko orduan proposamen alternatiboak baloratzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG2, STEM3, STEM4, STEM5, GD2, GD3, GPSII3, GPSII5, HG3, HG4, EG1, KAKG1.
6. Historian zehar izandako sistema ekonomikoak eta horien garapen-prozesuak azaltzea, aurrerapenaren ideia erakusteko balioetsiz,

gizartean, ingurumenean eta lurraldean dituen ondorioekin, egungo mundu ekonomikoa eta haren hegemonia, mendetasun eta mendekotasuneko harremanak ulertu ahal izateko, bai eta eskubide sozialengarrantzia eta oinarritzko baliabideetarako sarbide unibertsala ere. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG1, HKG 2, HKG 3, HKG 5, STEM5, GD1, GD2, GD3, GPSII4, GPSII5, HG1, HG2, HG3, HG4.

8. Bizi garen errealitate multikulturala osatu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalak ezagutzea eta ulertzea, aniztasunaren aberastasuna aitortzea eta berdintasunaren, inklusioaren eta gutxiengoekiko errespetuaren alde mugimenduek egindako ekarpena balioestea, diskriminazio mota oro saihesteko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG5, GE3, GPSII3, HG1, HG2, HG3, KAKG1.

Gorputz-hezkuntza:

4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako lankidetzako egoera soziomotrizetan moldatzea, autoerregulazio-prozesuak aurrera eramanez, jarrera enpatikoarekin, desberdintasun kulturalak, sozialak, generokoak eta trebetasunekoak alde batera utzita, parte hartzen den espazioetan bizikidetzatza sozialean, inklusioan eta konpromiso etikoan laguntzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG5, GPSII1, GPSII3, GPSII4, GPSII5, HG2, HG3, EG2 eta KAKG1.

Matematika:

1. Eguneroko bizitzako problemak eta matematikaren berezko problemak interpretatzea, modelizatzea eta ebaztea, hainbat estrategia eta arrazoitze-modu aplikatuz, jokatze eta irtenbide posibleak lortzeko hainbat modu aztertzea. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, GD2, GPSII5, EG3, KAKG4.
10. Trebetasun sozialak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak ezagutuz eta errespetatuz, eta proiektuetan aktiboki eta hausnartuz parte hartzea, esleitutako rolak dituzten talde heterogeneoetan, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitze, norberaren eta

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

taldearen ongizatea sustatzeko eta harreman osasungarriak sortzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG5, GE3, STEM3, GPSII1, GPSII3, HG2, HG3.

Teknologia eta digitalizazioa:

1. Hainbat iturritatik datorren informazio egokia bilatzea eta hautatzea, modu kritiko eta seguruan, ikerketa-prozesuak eta produktuak aztertzeke metodoak aplikatuta eta simulazio-tresnekin esperimentatuta, arazo teknologikoak definitzeko eta lortutako informaziotik abiatuta soluzioak sortzeko prozesuei ekiteko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKG3, STEM2, GD1, GD4, GPSII4 eta EG1.
7. Teknologiaren erabilera arduratsua eta etikoa egitea, eta, horretarako, garapen iraunkorrekiko interesa agertzea, haren ondorio ekosozialak identifikatzea eta sortzen ari diren teknologien ekarpena baloratzea, garapen teknologikoak gizartean eta ingurunean dituen ekarpenak eta inpaktua identifikatzeko. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: STEM2, STEM5, GD4 eta HG4.

Adierazpen artistikoa:

1. Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ezagutzea eta balioestea, genero-joerarik gabe, hainbat tresna aktiboki hartuz eta erabiliz, jakin-minez, sentikortasunez eta errespetuz, munduaren ezagutza sakona eta kritikoa garatzeko, eta ondarea kontserbatzeko beharra ulertzeko.

Gaitasun honi lotutako irteera-profilaren deskribatzaileak: HKG1, GE1, GD1, GPSII1, GPSII3, HG1, HG3, KAKG1.

Digitalizazioa:

5. Herritartasun digital kritikoa eta aktiboa izatea, gizarteko hainbat eremutan teknologia digitalek egiten duten ekarpena ezagutzea, sarean egin daitezkeen ekintzak ezagutzea eta teknologia modu aktibo, arduratsu eta etikoan erabiltzeko dituzten ondorioak identifikatzea. Gaitasun espezifiko hori irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: STEM5, GD3, GD4, GPSII1, HG1, HG2, HG3, HG4, EG1, KAKG1.

Garapen pertsonal eta sozialari aplikatutako filosofia:

3. Argumentazioan oinarritutako elkarriketa filosofikoa zorrotz, kritiko, tolerantzia eta enpatikoa praktikatzeko, jardura dialogiko kooperatiboetan parte hartuz, ideien trukea eta herritartasun aktibo eta demokratikoa sustatzeko. Irteera-profilaren deskribatzaileak: HKG5, STEM1, GPSII1, GPSII3, GPSII4, HG1, HG3.
6. Gaur egungo arazo etiko nagusiak eta horien aurrean egindako proposamenak aztertzea, ikerketaren, elkarriketaren eta bateratze-lanaren bidez, jarrera kritiko eta autonomia eraikitzeke, jarrera kontziente eta aktibo batetik aurre egin ahal izateke. Irteera-profilaren deskribatzaileak: HKG3, HKG5, STEM2, GD4, GPSII1, GPSII3, HG1, HG3, HG4.

4. BLOKEA: Tokiko ikuspegia

OINARRIZKO JAKINTZAK:

Funtsezkoa da gaitasun espezifikoak arlo bakoitzeko oinarrizko jakintza-multzoekin lotzea. Jarraian, zerrenda hori ezartzen duen taula-proposamen bat aurkezten da, Bakerako Hezkuntzaren ikuspegia kontuan hartuta. Oinarri horretatik abiatuta, irakasleak balioetsi eta kalifikatu nahi dituen ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak txertatu ahal izango ditu.

LEHEN HEZKUNTZA		
ARLOA	GAITASUN ESPEZIFIKOA	OINARRIZKO JAKINTZAK
INGURUNEAREN EZAGUTZA	8	C BLOKEA
	9	C BLOKEA
ARTE HEZKUNTZA	1	1. BLOKEA (PERTZEPZIOA ETA AZTERKETA)
	2	1. BLOKEA (PERTZEPZIOA ETA AZTERKETA)
BALIOETAN HEZTEA (6. LEHEN HEZKUNTZA)	1	C BLOKEA
	2	B BLOKEA
	3	C BLOKEA
	4	A BLOKEA
	5	E BLOKEA
ATZERRIKO HIZKUNTZA	6	C BLOKEA
EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA	6	B BLOKEA
	10	D BLOKEA
MATEMATIKA	2	F BLOKEA
	8	F BLOKEA

4. BLOKEA:

Tokiko ikuspegia

BIGARREN HEZKUNTZA		
ARLOA	GAITASUN ESPEZIFIKOA	OINARRIZKO JAKINTZAK
BALIO ZIBIKOETAN ETA ETIKOETAN HEZTEA	1	A BLOKEA
	2	B BLOKEA
	3	B BLOKEA
	4	A BLOKEA
EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA	10	B BLOKEA
GEOGRAFIA ETA HISTORIA	3	A BLOKEA
	4	A BLOKEA
	6	C BLOKEA
	8	B BLOKEA
GORPUTZ-HEZKUNTZA	4	C BLOKEA
MATEMATIKA	1	F BLOKEA
	10	F BLOKEA
TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	1	A BLOKEA
	7	F BLOKEA
ADIERAZPEN ARTISTIKOA	1	C BLOKEA
DIGITALIZAZIOA	5	D BLOKEA
GARAPEN PERTSONAL ETA SOZIALARI APLIKATUTAKO FILOSOFIA	3	C BLOKEA
	6	C BLOKEA

KOLABORATZAILEAK

NIEVES FERNÁNDEZ

UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteko Lehendakaria.

lehendakaritza@unetxea.org

ARANTZA ACHA

UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteko Zuzendaria.

a.acha@unetxea.org

EVA QUIROGA VÁZQUEZ

UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteko Hezkuntza teknikaria.

e.quiroga@unetxea.org

RUBÉN ÍÑIGUEZ

UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteko Komunikazio eta Dokumentazio-zentroko teknikaria.

r.iniguez@unetxea.org

CECILIA BARBIERI

Herritartasun Globalerako eta Bake Hezkuntzako Atalburua, Hezkuntza Sektorea, UNESCO.

c.barbieri@unesco.org

MAHA MALIK

Herritartasun Globalerako eta Bake Hezkuntzako Ataleko Ofizial orde, Hezkuntza Sektorea, UNESCO.

mt.malik@unesco.org

SULINI SARUGASER

Giza Eskubideen Ofiziala, Haur eta Gazteen Eskubideen Unitatea, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa.

sulini.sarugaser@un.org

AITANA JÁÑEZ PEDRAYES

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoko aholkularia eta haurrentzat egokitutako Bake Hezkuntzari buruzko "Bakearen Trena" txostenaren egilea.

aitana.jannez@gmail.com

MIREN GONZÁLEZ-BALS CABADO

Gorrito-diskurtsoari eta Herritartasun Digitalari buruzko Proiektuen Ofizial orde, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Atala, Hezkuntza Sektorea, UNESCO.

m.gonzalez-bals@unesco.org

LYDIA RUPRECHT

UNESCOren Eskola Elkartuen Sareko Nazioarteko Koordinatzailea eta UNESCOren ASPnet Unitateko Burua.

l.ruprecht@unesco.org

DIYA BADAMI

UNESCO'n praktikak egin zituen UNESCOren ASPnet Unitatean 2025eko irailetik 2026ko martxora.

d.badami@unesco.org

CRISTINA CUSENZA

Hezkuntza eta Kulturako Ofizial Profesional Juniorra. Herritartasun Globalerako eta Bakerako Hezkuntza Atala, Hezkuntza Sektorea, UNESCO.

c.cusenza@unesco.org

MARÍA OIANGUREN IDIGORAS

Gernika Gogoratuz Bakearen aldeko Ikerketa Zentroko zuzendaria.

mariaoianguren@gernikagogoratuz.org

BEGOÑA GUZMÁN SÁNCHEZ

UN Etxea-UNESCO sustatzeko Euskal Herriko elkarteko Kultura arduraduna.

b.guzman@unetxea.org



un
ETXEA

ASOCIACIÓN
DEL PAÍS VASCO
PARA LA UNESCO
UNESCO SUSTATZEKO
EUSKAL HERRIKO
ELKARTEA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN